



1. Haur Literaturaren txokoa

Zenbaki honetan harribitxi bakarra dakargu, *Maria Goikoak, batbirulau!* Hitz jolasak, tradiziozko poesia, poesia berriak, kantuak... Jolasa du abiapuntu eta jomuga liburu honek: jolas grafikoa, soinu jolasak, antzezpen txikiak, txistek... Jolas etengabe batean kateatzen da umorea, hitzetan eta irudietan.

Ereinek argitaratu zituen lau liburutzotan Anjel Lertxundi eta Antton Olariagaren lan hauek 80ko hamarkadan. 2011n, Galtzagorriren gidaritzapean, berriz kaleratu zen formatu berri honetan. Zaila izaten da poesia liburuak aurkitzea: oso gutxi argitaratzen dira, eta oso gutxi ezagutzen dira. Aurkezten dugun hau, adibide bikaina da.

Liburuaren erabilera errazteko, [gida bat](#) erantsi diogu. Era horretan, geletan eta etxeetan poesiaz eta kantuaz gozatzeko aukera izateko adibide batzuk eskaintzen ditugu. (Autore eskubideak errespetatzen saiatu gara, izan ere, adibide gisa agertzen dira eskaini ditugun testu eta irudiak). Ea ondo pasatzen duzuen!

Anjel Lertxundi eta Antton Olariaga. *Maria Goikoak batbirulau!* Alberdania, Erein eta Igela, 2011 (Klis-klasikoak)

2. Egitasmoa martxan

BULARRETIK MINTZORA gizartearen aurrean ezagutzera emateko asmoarekin, urte hasieran komunikazio plan bati ekin genion Galtzagorritik.

Planak emaitza ezin hobeak izan ditu, eta gure proposamenak harrera ona izan du hedabideetan. EITB taldeko irrati zein telebistak hainbat saio eskaini dizkiote egitasmoari: [Abusuko ekimen berezia](#) dela edo Liburuaren Egunean egindako [aipamena](#), adibidez. Goienera TBn, BM egitasmoa Debagoienako hiru herritan (Aramaio, Arrasate, Oñati) ezarrita dagoela eta, [elkarrizketa](#) egin ziguten.

Honi lotuta, beste albiste pozgarri bat ere badugu: 2013-2014 ikasturtean egitasmoan parte hartzeko informazio eskaerak izan dira EAEko 8 herritatik.

3. Hausnarketa gunea

Ebaluazioari lotuko gatazkio oraingoan ere. Dakizuen moduan, egitasmoa etengabe ebaluatzen da, eta, gaur arte, herri guztietan banatzen ziren galdekizunak guraso eta irakasleen artean. Parte hartzen duten herrien kopurua hazi egin da, eta, 2012-2013 ikasturteetik aurrera, ebaluazioari behar duen arreta eskaini ahal izateko, herriak multzoka antolatu ditugu.

Horrela, egutegi bat ezarri dugu, multzo bakoitzak galdekizunei epe jakin batzuetan bakarrik erantzuteko. Gure asmoa ebaluazioa doitzea da, emaitza baliogarrigoak lortzeko bidean.

2012-2013. ikasturtean, *gurasoen hasierako galdekizuna* Abusu, Aramaio, Ermua Erreterria eta Tolosan banatu dugu.

4. Ongi pasatzeko!

Hervé Tullet egile frantsesak, 2010ean argitaratu zuen [Un livre](#) jolas liburuak. Harrezkero, izugarritzko arrakasta izan du, eta hainbat hizkuntzatarata itzulia izan da. Orain, badugu euskaraz gozatzeko aukera Tarttalo argitaletxearen eskutik: [Liburu bat](#).

AEBetan argitaratu duen etxeak, *book trailer* polita prestatu du liburuaren “magia” erakusteko: [Press here](#)

Azkenik, beste bide bati helduta, Bayard argitaletxe frantsesak *tabletetarako* aplikazio digitala egin du: [Un jeu](#). Euskarri berriari ezin hobeto egokitu zaizkio paperezko liburuak jolaserako dituen aukerak.